

**2025EKO ABENDUAREN 22KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko abenduaren 22an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- GI-2120 ERREPIDEAREN AZPIKO LURPEKO PASABIDEAREN OBRAREN ORDAINKETA LAZKAO LANTZEN S.A.RI.-**

Gi-2120 errepidearen azpiko lurpeko pasabidearen obraren ordainketa Lazkao Lantzen S.A.ri ordaintzeko proposamena.

Guztira 175.318,34 € (BEZ-a barne)

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

**II- ATAUNGO UDALARI, URBAUNDIRAKO BIDEAN BURUTUTAKO OBRAREN ZENBATEKOAREN ERDIA ORDAINTZEA.-**

Ataungo udalari, urbaundirako bidean burututako obraren zenbatekoaren erdia ordaintzeko proposamena.

Guztira 19.953,00 € (BEZ-a barne)

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, onartu egin du.

**III.- MEANDRO ALDEKO OINEZKOENTZAKO BIDEA EGITEKO LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-**

2. Obra Egiaztagiria 52.586,60 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), bigarrenko obra egiaztagiri hau onartu egin du.

**IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-**

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

#### Gerriko Kultur Elkarteari.-

2025eko ekainetik abendura bitartean aurrera eraman duen Mintzalagun jarduera antolatzeagatik, dagokion 5.500 €-ko bigarren ordainketa egitea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 481.02.335. 00 partidatik.

#### V.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Basherri eguna.-

2025eko irailaren 21ean izandako Basherri egunean parte hartu zuten baserritarren zerrenda eta ordainketa egitea proposatzen da.

Guztira 8.442,88 €, ordaintzea onartu da.

##### - Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei seigarren ordainketa egitea.

Guztira 53,57 €

#### VI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jarduerari dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### - Merkatarien bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritza sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko urrian martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatariek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bostgarren ordainketa egitea.

Guztira 7,50 €

#### VII.- OSASUN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte. -

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2025ko aurrekontuan aurreikusitako 3.250 €ko dirulaguntzaren bigarren zatia, 1.250 €-koa hain zuzen, orain ordaintzea.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK. -

Ez dago galderarik.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA. -

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta laurden direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.